

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

13/2020 Foru Araua, uztailaren 23koa, 9/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 14koa, baliozkotzeko dena, onesteko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren aldaketa, zerga arloan informazioa automatikoki eta nahitaez trukatzeari buruzkoa, komunikatu eta jakinarazi behar diren mugaz gaindiko mekanismoei dagokienez

Arabako Batzar Nagusiek, Batzorde Iraunkor gisa eraturako Arautegi eta Barne Gobernu Batzordeak 2020ko uztailaren 23an egindako bilkuran, ondoko foru araua onetsi dute:

13/2020 Foru Araua, uztailaren 23koa, 9/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 14koa, baliozkotzeko dena, onesteko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren aldaketa, zerga arloan informazioa automatikoki eta nahitaez trukatzeari buruzkoa, komunikatu eta jakinarazi behar diren mugaz gaindiko mekanismoei dagokienez.

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak -Arabako Zerga Orokorri buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, uztailaren 14ko 9/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onesteko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren aldaketa, zerga arloan informazioa automatikoki eta nahitaez trukatzeari buruzkoa, komunikatu eta jakinarazi behar diren mugaz gaindiko mekanismoei dagokienez.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Batzorde Iraunkor gisa eraturako Arautegi eta Barne Gobernu Batzordeak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua araberan, bidezkoa da aipaturiko Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da uztailaren 14ko 9/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onesteko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren aldaketa, zerga arloan informazioa automatikoki eta nahitaez trukatzeari buruzkoa, komunikatu eta jakinarazi behar diren mugaz gaindiko mekanismoei dagokienez.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 23a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA